

Eduardo Chillida. *Mano*. 1995. Tinta paperaren gainean / Tinta sobre papel.  
Eskaintza / Cortesía de: Sucesión Eduardo Chillida y Hauser & Wirth / © Zabalaga Leku. San Sebastián, VEGAP, 2023.

# LAUZURIKA RACHMANINOFF

20

Otsaila / Febrero

19:30

Pamplona / Iruña

BALUARTE

# EUSKADIKO ORKESTRA

Zuzendari Titularra / Director Titular:  
**Robert Treviño**

## **KONTZERTINOA** **CONCERTINO**

Anna Reszniak

## **I BIOLINAK / VIOLINES I**

Beatrice Gajju (1) (5)  
Xabier de Felipe (4)  
José Ignacio Aizpiri  
Inmaculada Aramburo  
Laura Balboa  
Irene Echeveste  
Marie Gaillard  
Alexandre Kozouline  
Oscar López  
Maite Menéndez  
Larraitz Oartzabal  
Ortzi Oihartzabal  
Itziar Prieto  
Maialen Rezabal  
Cristina Vértiz

## **II BIOLINAK / VIOLINES II**

Raquel Cortinas (2)  
Xabier Gil (2)  
Mikel Ibañez (4)  
Marie Héloïse Arbus (5)  
Amaia Asurmendi  
Nathalie Dabadie  
Virgile Demillac  
Ludwik Hamela  
Anne-Marie Harmat  
Antoni Kosc  
Ricardo Ruiz  
Igor Torre

## **BIOLAK / VIOLAS**

Delphine Dupuy (2)  
Pawel Krymer (2)  
Monika Mazur (4)  
Maite Abasolo  
Esther Alba  
Pascal Arnaud  
Natacha Dupuy-Scordamaglia  
Justyna Janiak-Krymer  
Arkaitz Martínez  
Sergio Montero  
Yann Seyrac

## **BIOLONTXELOAK** **VIOLONCHELOS**

Juan Ignacio Emme (2)  
Gabriel Mesado (2)  
Flore Lefevre (4)  
Natalia Díaz  
Jacek Grabe-Zaremba  
Jon Larraz  
Beatriz Linares  
Pascale Michaud  
Ian Swedlund

## **KONTRABAXUAK** **CONTRABAJOS**

Arkadiusz Maciejski (2)  
Paloma Torrado (2)  
Marc Sirera (4)  
Victor Bogdanov  
Mehmet Sönmez  
Pierre Torrent

## **FLAUTAK / FLAUTAS**

Hélène Billard-Alirol (2)  
Bruno Claverie (2)  
Ander Erburu  
Oihana Kontxeso

## **OBOEAK / OBOES**

Óscar Diago (2)  
Javier Lecumberri (2)  
Pascal Laffont  
Hervé Michaud

## **KLARINETEAK** **CLARINETES**

Luis Cámara (2)  
Juan Navarro (2)  
Stéphane Langlois  
Sara Zufaurre

## **FAGOTAK / FAGOTES**

Marco Caratto (2)  
François Proud (2)  
Yuan Dai  
Anne Charlotte Lacroix

## **TRONPAK / TROMPAS**

Marcos Cruz (2)  
Adrián García Carballo (2)  
Cristian Palau (2)  
Ignacio Sánchez (3) (5)  
Jean-Luc Casteret  
Xabier Sarasa  
Salvador Tudela

## **TRONPETAK / TROMPETAS**

Didier Bousquet (2)  
Bernabé García (2)  
Jesús Castillo  
Miguel Echepare

## **TRONBOIAK / TROMBONES**

Arnaud Mandoche (2)  
Christophe Sánchez (2)  
Frédéric Boulan (5)  
Daniel Ruibal

## **TUBA**

Oscar Abella (2)

## **TINBALAK ETA PERKUSIOA** **TIMBALES Y PERCUSIÓN**

Igor Arostegi (2)  
Anthony Lafargue (2)  
Héctor Marqués (2)  
Irene Rodríguez (3) (5)  
Xabier Peña

## **HARPA / ARPA**

Iván Bragado (2)

- (1) Kontzertinoaren laguntzailea / Ayuda de concertino
- (2) Bakarlarria / Solista
- (3) Bakarlari-laguntzailea / Ayuda de solista
- (4) Lehen *tuttia* / Primer tutti
- (5) Aldi baterako kontratazioa / Contratación temporal



**ROBERT TREVIÑO**  
Zuzendaria / Director

## EGITARAUUA ^ PROGRAMA

I

### **JOSEPH HAYDN** (1732-1809)

#### **Sinfonía nº8 en sol mayor, Hob.I:8, 'Le soir' [23']**

- I. Allegro molto
- II. Andante
- III. Menuet
- IV. La tempesta: Presto

### **ANTONIO LAUZURIKA** (1964)

#### **Chillida-Elogios**

(Erabateko estreinaldia / Estreno absoluto)

- I. Elogio del horizonte
- II. Elogio de la gravitación
- III. Elogio del hierro y del acero
- IV. Elogio de la utopía



**EDUARDO  
CHILLIDA**  
100 AÑOS

3

II

### **SERGEI RACHMANINOFF** (1873-1943)

#### **Sinfonía nº3 en la menor, Op.44 [39']**

Argitaletxea / edita: Boosey & Hawkes, Inc.

- I. Lento; Allegro moderato
- II. Adagio ma non troppo
- III. Allegro

Eszenatoki ganean Chillida Leku museoak utzitako obra hau dago ikusgai:  
Sobre el escenario se muestra esta obra cedida por el museo Chillida Leku:



**Eduardo Chillida**  
(1924-2002)

**La casa de Goethe, 1981**

Hierro  
30cm x 25cm x 45cm

**E**femeride batek markatu du Abonu Denboraldiko bosgarren programa: Eduardo Chillidaren (1924-2002) jaiotzaren mendeurrena. Haren omenez, eta SGAE Fundazioaren eta AEOS elkartearen babesarekin, Euskadiko Orkestrak obra berri bat enkargatu du. **Joseph Haydnen 8. Sinfonia** entzungo dugu atariko gisa, eta gero ezagutuko dugu obra berria. «**Gaua**» ezizenez ezagutzen da *8. Sinfonia*, eta trilogia bat osatzen du *6. Sinfoniarekin* (Goiza) eta *7. Sinfoniarekin* (Eguedria) batera. 1761ean konposatu zituen, eta eguneko tarteei lotutako aldarte-egoerak islatzen dituzte.

Carmelo Bernaolaren ikaslea izan zen **Antonio Lauzurika**, eta haren lan pedagogikoari jarraipena eman zion Gasteizko Kontserbatorioan. Haren irakasleak bezala, poetikoa eta estrukturala konbinatzen ditu Lauzurikak bere musikan. Eta material interbalikoen eta motibikoen artisau-lanak definitutako lengoaia musikalaren abstrakzio puruan isurtzen dira bizitzako esperientzia eta jakin-min intelektuala. Askotariko subjektuek inspiratutako obrak idatzi ditu: landareak, gau lasaiaren soinu-paisaia, bidaiatzearen inguruko filosofia, astroen mugimendua edo sugarrak kristalen gainean sortzen duen isla. Musikaz gaindiko ideiak eta irudiak diren arren, autorearen burua termino musikaletan baino mugitzen ez den espazioetara sartzeko giltzak dira.

**Chillida-Elogios** lanean, Chillidaren lanak iradokitzen diona pentagrametara pasatzean, honakoa izan da Lauzurikaren helburua: «Oso desberdinak diruditen baina horren desberdinak ez diren bi munduren arteko elkarrizketa bat sortzea. Espazioa, muga, masa, eskala, grabitatea, gainazala, dentsitatea, ehundura... Ideia horiek musikan ere presente daude, edo nolabaiteko isla metaforikoa izan dezakete musikan». Mugimendu bakoitza «elogio» edo «gorazarre» baten gisara aurkezten da. Hitz hori behin eta berriz agertzen da Chillidaren lanetan: *Uraren gorazarrea*, *Burdinaren gorazarrea* edo *Argiaren gorazarrea*. Eskultorearen artearen alderdi jakin batean zentratzeko balio dio terminoak Lauzurikari. Hala, *Zerumugaren gorazarrea* hormigoiz eraikitako izen bereko lanean dago inspiratuta. Lauzurikak «irrotasuna» ikusten du lanean, baina «eskuraezinaren bila doan goranzko mugimendu bat» ere bai, eta partituran ideia horiek txertatzen saiatu da. Aldiz, bigarren mugimendua, *Grabitazioaren gorazarrea* izenekoa, Chillidaren papereko lanean eta haren obra grafikoaren trazu arinagoan dago oinarrituta. Ondorioz, «beheranzko mugimendua» eta soinuaren «ageriko arintasuna» arakutzen ditu.

Hirugarren zatiaren izena *Burdinaren eta altzairuaren gorazarrea* da, eta Chillidak material horiek erabilita sortutako lan sorta handian eta boteretsuan oinarritzen da. Lauzurikaren hitzetan, «mazoak burdinaren kontra jotzean sortzen den soinuaren, hau da, galdategi bateko soinuaren bariazioetan oinarrituta dago, neurri handi batean, mugimendu honen garapena». Esplorazio horretan gehiago sakontzeko, perkusionistek jotzen dituzten tresnetako batzuk burdinazko piezak dira, Legazpiko Chillida Lantokitik ekarritakoak. Bere garaian pieza horiekin lan egin zuen eskultoreak berak. *Utopiaren gorazarrearekin* amaitzen da *Chillida-Elogios*. Donostiako artistaren ekoizpenik kontzeptualenean inspiratuta dago zati

hori eta, zehazki, gauzatu ez zuen proiektuan: Fuerteventurako Tindaya mendiaren gaineko esku-hartzea. Harria da mugimendu honen erreferentziazko materiala. Konpositorearen arabera, «nukleo oso kontzentratu batetik abiatu eta osotasuna eraikitzen da, Chillidak mendiarekin egin nahi zuenaren aurkako zentzuan. Obraren hasieran aurkezten den akorde bat baino ez da nukleo hori. Haren izenaren alemanezko transkripzioaren anagramatik (E-C-H) ateratako notetan du jatorria. Chillidak sinadura gisa erabiltzen zuen anagrama hura».

**Rakhmaninovek** 1935eko udan idatzi zuen haren **3. Sinfonia**, hau da, sinfonien eremuan izandako aurreko parte-hartzetik 27 urtera. Errusiarrak denbora-tarte luzeak utzi zituen igarotzen haren trilogia sinfonikoaren entrega bakoitzaren artean. Lehen esperientzia, 1985ekoa, traumatikoa izan zen. Izan ere, *1. Sinfonia* oso baldintza txarretan estreinatu zen eta kritikaren harrera oso txarra izan zuen; ondorioz, sormenaren blokeoa eragin zion. Aldiz, *2. Sinfonia* estreinatu zuenean, 1908an, alderantzizkoa gertatu zen, eta haren arrakastarik handienetako bat bilakatu zen. *Bigarren Sinfonia* mundu osoko programazioetan horren ongi funtzionatzen ari zela ikusita, Rakhmaninovek denbora hartu zuen hirugarrenarekin hasteko. Eta, gainera, konpositore gisa erabat egonkortuta egin zuen, Luzernako udako etxetik. Eta gogoia zuelako egin zuen, ez baitzuen berariazko enkargurik. Beste bi mugimenduak 1936ko ekainean amaitu zituen eta obra ia berehala estreinatu zen, azaroaren 6an, Filadelfiako Orkestran, Leopold Stokowskik zuzenduta. Rakhmaninovek partitura berrikusi zuen 1938an eta berak zuzendu zuen obraren lehen grabaketa, handik urtebetera, Filadelfiako Orkestrarekin.

Itxura klasikoagoa izan arren, *Hirugarren Sinfonia*, egiaz, haren konposiziorik modernoenetako eta originalenetako bat da. Publikoak harrera epela egin zion, baina Rakhmaninovek ez zuen fedea galdu: «Musikaren munduko hiriburu bakoitzean behin entzun da, eta kondenatu egin dute guztietan. Baina oso litekeena da berrogeita hamar urte barru berraurkitzea eta arrakasta txundigarria bilakatzea, Schumannen *Biolinerako Kontzertuarekin* gertatu zen bezala». Momentuz, iragarpen hori ez da bete, eta ez da asko programatzen. Agian, orkestrak bertuosismo maila handia izatea eskatzen duelako gertatzen da hori. Izan ere, parte hartzen duten guztien aldetik lan handia eskatzen du obrak. Edo, agian, Rakhmaninoven «jenialtasun» adierazkor hiperromantiko gutxiago dituelako, planteamendu estruktural koherenteago eta kontrolatuago baten alde —*adagio* bat eta *scherzo* bat zuhurki batzen dituen tarteko mugimendu hori bezala—. Gainera, lengoia harmonikoan ausarkeria ugari ditu. Eta, sarritan bere tonua markatzen duen melankoliaren ostean, fatalismo kontaezina, autorearen marka dena. Bere beste sorkuntza batzuetan bezala, hildakoen mezako *Dies irae* melodiaren bidez adierazten da fatalismo hori. Funtsean, badirudi errusiarrak beste bide batzuk arakatu nahi zituela sinfonia honekin. Baina, era berean, publikoari Rakhmaninovengandik gustatzen zaion guztia du *Hirugarren Sinfoniak*: melodia zabalak (indar adierazkor guztia ateratzen die eta une giltzarrietarako gordetzen ditu), orkestrako kolore ederrak eta ageriko sentimentaltasuna.

Una efeméride marca el quinto programa de la Temporada de Abono: el centenario del nacimiento de Eduardo Chillida (1924-2002). En su homenaje, y con el apoyo de Fundación SGAE y AEOS, Euskadiko Orkestra ha encargado una nueva obra que descubriremos justo después del breve preludio que constituye la *Sinfonía n.º 8* de **Joseph Haydn**. Apodada «**La noche**», forma una trilogía junto a las sinfonías *Sexta* (La mañana) y *Séptima* (El mediodía), compuestas en 1761 y que reflejan los estados de ánimo de los asociados a los periodos del día.

**Antonio Lauzurika** fue alumno de Carmelo Bernaola y continuador de su labor pedagógica en el Conservatorio de Vitoria. Al igual que su maestro, en su música combina lo poético con lo estructural y la experiencia vital y la curiosidad intelectual se vierten en la pura abstracción de un lenguaje musical definido por una elaboración artesanal de los materiales interválicos y motivicos. Ha escrito obras inspiradas por los sujetos más variados: las plantas, el paisaje sonoro de la noche en calma, la filosofía que rodea al acto de viajar, el movimiento de los astros o los reflejos de la llama sobre los cristales. Ideas e imágenes extramusicales que, sin embargo, son solo una llave de acceso a espacios en los que la mente del autor se mueve en términos exclusivamente musicales.

En *Chillida-Elogios*, al trasladar a pentagramas lo que la obra de Chillida le sugiere, Lauzurika ha querido «establecer un diálogo entre dos mundos que parecen muy distintos pero que no lo son tanto. Conceptos como espacio, límite, masa, escala, gravedad, superficie, densidad, textura, etc., son ideas que están presentes también en la música o que pueden tener un reflejo más o menos metafórico en la misma». Cada movimiento se plantea a la manera de un «elogio», un término que aparece recurrentemente en obras de Chillida como *Elogio del agua*, *Elogio del hierro* o *Elogio de la luz*. El término le sirve a Lauzurika para centrarse en un aspecto concreto del arte del escultor. Así, el *Elogio del horizonte* se inspira en la obra de mismo título construida en hormigón. Lauzurika ve en ella «rotundidad» pero también «un movimiento ascendente en busca de lo inalcanzable», ideas que trata de atrapar en la partitura. En claro contraste, el segundo movimiento, *Elogio de la gravitación*, parte de la obra en papel de Chillida y del trazo más liviano de su obra gráfica, y, por consiguiente, explora el «movimiento descendente» y una «evidente ligereza» en el sonido.

*Elogio del hierro y del acero* es el título de la tercera parte, y tiene en mente la vasta y poderosa producción en la que Chillida utilizó dichos materiales. Según Lauzurika, «el desarrollo de este movimiento está basado en gran medida en variaciones del sonido provocado por el golpe de la maza contra el hierro propio de una fundición». Para llegar más lejos en esta exploración, algunos de los instrumentos que golpean los percusionistas son piezas de hierro provenientes de Chillida Lantoki de Legazpi, con las que, en su tiempo, trabajó el propio escultor. *Chillida-Elogios* finaliza con *Elogio de la utopía*, inspirado en la producción más conceptual del artista donostiarra y, específicamente, en su proyecto no realizado de intervención sobre la montaña Tindaya en Fuerteventura. La piedra es el material referente de este movimiento que, según el compositor, «parte de un núcleo muy concentrado a partir del cual se construye la totalidad, en un sentido contrario al que hubiera deseado realizar Chillida con la montaña. Ese núcleo no es sino un acorde que se presenta al principio

de la obra y que tiene a su vez origen en las notas extraídas del anagrama de su nombre (E-C-H) en su transcripción alemana, y que Chillida utilizaba como firma».

**Rachmaninoff** compuso el primer movimiento de su *Sinfonía n.º3* en el verano de 1935, es decir, 27 años después de su anterior incursión en el terreno de la sinfonía. El ruso dejó pasar grandes lapsos de tiempo entre cada entrega de su trilogía sinfónica: su primera experiencia, en 1895, fue traumática, ya que la *Sinfonía n.º1* se estrenó en tan pésimas condiciones y tuvo tan mala recepción crítica que incluso le provocó un bloqueo creativo; y con la *Sinfonía n.º2*, de 1908, la historia fue justo al revés y se convirtió en uno de sus mayores éxitos. Teniendo en cuenta que la *Segunda sinfonía* estaba funcionando tan bien en las programaciones de todo el mundo, Rachmaninoff se tomó su tiempo para embarcarse en una tercera. Y lo hizo, además, desde un estatus ya completamente asentado como compositor, desde su villa de verano en Lucerna y porque le apeteció, ya que no fue fruto de ningún encargo específico. Los dos movimientos restantes los terminaría en junio de 1936 y la obra se estrenó casi inmediatamente, el 6 de noviembre, por Leopold Stokowski dirigiendo la Orquesta de Filadelfia. Rachmaninoff revisaría la partitura en 1938 y él mismo dirigió la primera grabación de la obra con la Orquesta de Filadelfia un año después.

Bajo su apariencia quizá más clásica, la *Tercera Sinfonía* es en realidad una de sus composiciones más modernas y originales. Recibió una tibia acogida por parte del público, pero Rachmaninoff no perdió la fe en ella: «Se ha escuchado una vez en cada capital del mundo musical; ha sido condenada en todas ellas. Pero es muy posible que dentro de cincuenta años sea redescubierta, tal y como ocurrió con el *Concierto para violín* de Schumann, y se convierta en un éxito sensacional». De momento, tal vaticinio no se ha cumplido y se sigue programando relativamente poco. Quizá sea porque exige un alto grado de virtuosismo por parte de la orquesta; es una obra que demanda muchísimo trabajo de todos los implicados. O, quizá, porque contiene menos de las «genialidades» expresivas hiperrománticas de Rachmaninoff en favor de un planteamiento estructural más coherente y controlado —como ese movimiento intermedio que unifica inteligentemente un *adagio* y un *scherzo*—. No le faltan tampoco numerosos atrevimientos en el lenguaje armónico y, tras la melancolía que a menudo marca su tono, un inefable fatalismo que es marca del autor, representado, como en otras de sus creaciones, por la aparición de la melodía del *Dies irae* de la misa de difuntos. Definitivamente, parece que el ruso andaba explorando otros caminos con esta sinfonía, pero la *Tercera* tiene también todo lo que al público le gusta de Rachmaninoff: amplias melodías de las que sabe extraer toda su potencia expresiva reservándolas para los momentos clave, hermosos colores orquestales y un sentimentalismo a flor de piel.

MIKEL CHAMIZO

HURRENGO ABONU KONTZERTUA • PRÓXIMO CONCIERTO DE ABONO

# RACHMANINOFF STRAUSS

Martxo 12 Marzo

| 19:30



SARRERAK ENTRADAS

10€ < 38€

euskadikoorkestra.eus  
baluarte.com  
Leihatila - Taquilla

AZKEN  
ORDU  
GAZTEA!  
10€







# EUSKADIKO ORKESTRA

ZUZENDARI TITULARRA

ROBERT TREVIÑO

DIRECTOR TITULAR



MAHLER · BRAHMS · SHOSTAKOVICH · RAVEL · FALLA · COPLAND  
LAUZURIKA · RACHMANINOFF · STRAUSS · VENEGAS · PROKOFIEV  
MOZART · BRUCKNER · LALO · DVORAK · DUTILLEUX

Bilboko Koral Elkarteak · Justina Gringyte · Stanislav Kochanovsky · Sergey Khachatryan · Juanjo Mena  
Clara Mouriz · Alfonso Gómez · Juraj Valcuha · Riccardo Frizza · Federico Colli · Pablo González  
Donostiako Orfeoia · Alisa Kolosova · Marie Jacquot · Markus Schirmer · Lina González-Granados  
Alban Gerhardt · Elena Sancho Pereg



**SARRERAK / ENTRADAS**

A partir de **10€** -tik gora

**Tarifa bereziak: kontsultatu deskontuak**  
Tarifas especiales: consultar descuentos

**PAMPLONA / IRUÑA - Baluarte**  
19:30

euskadikoorkestra.eus - 943 01 32 32